



## **IZAROK "EASON" IZENeko BERE BIGARREN DISKOA KALERATUKO DU OSTIRALEAN, OTSAILAK 16**

DAGOENeko IZENDATU DUTE 2018ko DISKO ESPEROENETAKO BAT.

**BIRAKO LEHEN 20 DATAK AURKEZTU BERRI DITU.**

ARRIAGA ANTZOKIKO KONTZERTURAKO AZKEN 100 SARRERAK BAINO EZ DIRELA GELDITZEN DIRELA GOGORARAZTEN DU, BAITA GASTEIZKO KONTZERTURAKO ERE, DONOSTIAN VICTORIA EUGENIARAKO SARRERAK KONTZERTUA BAINO BI HILABETE LEHENAGO AGORTU ETA GERO.

[IZAROK](#), Mallabiako (1993) kanta-egileak bigarren disko argitsu eta zoragarri bat egin du.

“Bigarren lan hau lehenengoa baino kontzienteagoa da zentzu askotan: banekien bigarren hau etortzea nahi nuela, banekien norekin egin, nola, nondik eraman nahi nuen eta banekien zertarako. Baina lehenengo lan hartan bezala ez nekien nora, eta utziko diot denborari azken hori erabakitzen. Aurkitze bat kontatu nahi izan dut disko honetan, nire buruaren aurkitzea. Batzuk askotan aurkitzen dute norbera, modu askotara eta leku askotan; beste batzuk ez dira inoiz aurkitzen. Askotan, alde egiten dugu beste herri eta hiri batzuetara aukera berriak aurkitzeko asmoz, konturatu gabe, akaso, gure burua aurkitzera goazela. Ni behin baino gehiagotan aurkitu naizen arren, bereziki presente daukat Donostian aurkitu naizenekoa. Disko honetan bildu dut aurkitze hori, galduta zaudela konturatzetik zorientasunera. Sosegua eta perspektiba. Nahiko nuke lan honekin entzule bakoitza bere aurkitze propioekin konektatzea.”

Martxoak 8 antzoki handietara egingo du salto. Arriaga eta Victoria Eugeniara, hain zuzen. Eta gero Madril,artzelona, Galizia, Mexiko... Bere disko berria 2018ko esperoenetakoa da.

Izaroren sentsibilitate handiko musika intimoak ingurukoen barrenak mugitzen ditu era sahiestezinean. Hedabideak, entzuleak eta lurraldeak gehituz doaz gero eta handiagoa den familia honetara.

[Er\(h\)ori](#)-ren pop askatzaile eta energikoa, [Zure ezpainen itsasoan](#)-en sakontasuna eta edertasuna, [La Felicidad](#)-en Latinoamerikara bidaia, edo bere Kaliforniako iraganera [Devil](#)-en bluesarekin edo [Pick Up](#), [Zuri Begira](#) sehaska-kanta... Begirada eta kolore askoko diskoa aurkeztuko du, poliedrikoa eta konplexu gabea, Izaroren mundua bezala.

[Donostia](#) eta [Deliriosek](#) Izaro aterpetu duen hiriarekin fusionatzen den kontzeptua sortzen dute.



radio 3

## MARTXOA / MARZO

- 08 **BILBO** ARRIAGA ANTZOKIA 20:00
- 09 **DONOSTIA** VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA 20:00
- 16 **IRUÑEA** ZENTRAL 22:00
- 18 **MADRID** LA CASA ENCENDIDA
- 24 **GASTEIZ** HEGOALDE 20:00

## APIRILA / ABRIL

- 06 **SANTIAGO COMPOSTELA** CAPITOL (+ BELAKO) 22:00
- 07 **A CORUÑA** GARUFA (+ BELAKO) 22:00
- 13 **BARCELONA** ATENEU L'HARMONIA 21:00
- 14 **VIC** JAZZ CAVA 22:00
- 27 **HERNANI** KULTUR ETXEA 20:00
- 28 **BALIARRAIN** LOPETEDI BASERRIA 21:00

## MAIATZA / MAYO

- 04 **AZPEITIA** SANAGUSTIN KULTURGUNEA 22:00
- 05 **BERRIZ** KULTUR ETXEA 20:00
- 11 **ERRETERIA** NIESSEN 22:00
- 12 **LEMOA** KUSTIK 22:00
- 18 **LEKEITIO** ARETOA 20:30
- 26 **TOLOSA**

## EKAINA / JUNIO

- 02 **IGORRE** KIÑU GAZTETXEA 21:00
- 09 **BASAURI** SOCIAL ANTZOKIA 20:00
- 26 **ARRASATE**

I Z A R O  
eason

